

TOLOSA ▶

Pistako ziklista gazteak

Ondo aritu dira Olea eta Pagola ▶ 3



Herensugea eta pregoia sanmielak hasteko Iruran

TXUPINAZOA ▶ Atzo arratsaldean bota zuten jaien hasierako txupinazoa udaletxeko balkoitik

HERRIA ▶ Herri aberatsenetakoa dela gogoratu zuen Marimi Ugalde alkateak bere pregoian ▶ 4



Atzo arratsaldean eman zitzaion hasiera San Migel jaiari Iruran. Herensugea iritsi eta Marimi Ugalde alkateak pregoia irakurri zuen. Eskerrak eman eta Irura herri aberatsenetakoa dela gogorazi zieten herritarrei. Ikastola, «joan direnak eta gure artean ez daudenak» oroimenean izan zituen ondoren eta, bukatzeko, jai zoriontsuak opa zituen. Gaur, gazte-

ek protagonismo berezia izango dute jaien egitarauan, bazkaria eta Nok eta Reincidentes taldeen kontzertuarekin, baina haurrentzako eta helduentzako ekitaldi ugari izango dira: marrazki lehiaketa, xare eta pala partidak, ikuskizunak, pailazoak, sagardo dastaketa, tango eta milongak... Argazkian, herensugea herriko plazan. GARAZI AZKUE

TOLOSA ▶

Mugikortasun Planaren helburuak definitzen

Ekarpenak diagnosian txertatuko dira ▶ 2

VILLABONA ▶

Halterofilian hiru marka jarri ditu Jon Sasiainek ▶ 5

IBARRALDEA ▶

Kutzazabalek proiektuak lagunduko ditu lau herritan ▶ 6

LEITZA ▶

Okile ezinduen tailerra lanean ari da

Paper zaharrekin berria egiten dute ▶ 7

SIDRO LARRANAGA
MUSIKA TALDEAK

2004-2005 ikasturtea

- Abesten ikasi nahi duzu ?
- Instrumentu bat ikasi nahi duzu ?
- Ilusika talde batetan jo nahi duzu ?

Ikasketak guztientzako, 5 urtetik aurrera (helduak barne).
Irakaslego titulatuak.
Izen-ematea: 943 65 45 46

GAUR EGUN: LEKUONA, 2-1 • TEL.: 943 65 24 30

honekin_estilistak@hotmail.com

ILEAPAINDEGIA
honekin
BEREHALA
IREKIKO
DZUGU

BEREHALA: SANTA MARIA PLAZA, 1 • TOLOSA

MUGIKORTASUN IRAUNKORRAREN ASTEA ▶

Mugikortasuna hizpide, iritzi asko bildu dituzte eztabaidan

Parte-hartzailen ekarpenak talde teknikoak aurkeztutako diagnosian txertatuko dira, «Tolosako Mugikortasun Jasangarrirako Planaren helburuak definitzeko»

IRATXE ETXEBESTE

Asteazkenean amaitu zen, Europako Autorik Gabeko Eguna-ekin, Mugikortasun Iraunkorraren Astea Tolosan. Hainbat eta hainbat izan dira aste osoan herrian egin dituzten ekintzak, eta gehienek herritarren parte-hartze handia izan dute. Esaterako, asteartean, hilak 21, mugikortasunari buruzko foroa egin zuten Kultur Etxean, udalerriko mugikortasun iraunkorrerako aukerak eta erronkak aztertze aldera. Kontseilu irekia sortu zuten antolatzailerak horretarako.

Behin mugikortasunari buruzko behin-behineko diagnostia aurkeztuta, mugikortasun ereduaren inguruan —oinezkoak, bizikleta, garraio publikoa, ibilgailu pribatuak, aparkalekuak...— ahalik eta ikuspuntu eta iritzi gehien jaso nahi zituzten Tokiko Agenda 21eko aholkularitza batzordekoek. Bertan izan zen GEA 21 enpresako kide Pilar Vega; lurreko garraioetan aditua da eta mugikortasun jasangarrirako plan eta estrategietan eskarmentu handikoa. Enpresa horrek egin du, hain zuzen ere, diagnostia, eta Vegak diagnosiaren ondorioak azaltzen jardun zuen saio horretan.

Hausnarketa tartea ireki zuten jarraian, herritarren eta kolektibo ezberdinen iritziak jasotzeko. Herriko hezkuntza, kul-



Mugikortasunari buruzko foroan parte-hartze handia izan zen. HITZA

tura eta kirol komunitateen ordezkariak izan zen ugariena, eta baita herritar partikular, auzo elkarte, landa garapen, sindikatu eta alderdi politikoen ere. Jasotako ekarpenen artean, askotariko iritziak izan zirela esan dute antolatzailerak.

Garraio publikoari dagokionean, ikastetxeetako ordezkariak ikasleen beharrak aztertzea eskatu zuten foroan, hiri garraioaren ordutegiak hobetu eta haien zerbitzura egokitzeko. «Beste premia batzuren artean, geltokiak koordinatzea —adibidez, tren-urbanoa-To-

losaldea Bus—, beste garraio-bideekin bateragarri bilakatea —adibidez, tren-bizikleta— eta garraio mota hori sustatzeko geltokietan aparkalekuak sortzea proposatu zuten herritarrek eta elkarte eta taldeetako ordezkariak».

Bizikletaren erabilera sustatzeko, aldiz, udalerriko zenbait tokitara —apeaderora eta ikastetxeetara, besteak beste— iristeko dauden mugak gainditzeko neurriak hartzea eta Tolosaldea batuko duen bigogorriaren planteamendu egokia egitea proposatu zuten. Bestetik, oinezkoentzako guneak berreskuratzea, irisgarritasuna oztopatzen duten mugak ezabatzea eta auto gidari, bizikletazale eta oinezkoen artean errespetuzko jokabide eta harremanak finkatzea beharrezko dela uste dute herritarrek.

Aparkalekuen gaiari ere heldu zioten parte-hartzaileek mugikortasun iraunkorraren inguruan egindako eztabaida saioan. Hirigunetik kanpo, zenbait auzotan auto pilaketak sortzen direnez, arazo horri konponbidea ematea lehentasunezko gaia izan behar duela zioten. Era berean, «larunbateko azoka dela eta baserritarrek ekartzen dituzten ibilgailuek sortzen dituzten arazoei eta baserritarren euren arazoei irtenbidea eman behar zaie» herritarren aburuz.

Kutsadura akustikoa

«N-1 errepideko trafikoaren eraginez, Tolosa parean zarata handia erregistratzen da», esan zuten foroko parte-hartzaileek azkenik. MOE-k gomendatzen duen zarata maila gainditu egiten da, izan ere, eta kezka eragiten die horrek herritarrei. Horregatik, beharrezkotzat jo zuten kutsadura akustikoa kontrolatzeko neurriak hartzea. Tolosako alkate Jokin Bildarratzek zarata maila arintzeko «pantaila akustiko bat jartzeko proiektua» aurreikusia dagoela esan zuen, horren harira.

Egindako proposamen horiek guztiak eta astearteko eztabaida saioan herritarren eta herriko taldeetako eta elkarreetako ordezkarien aldetik jasotako ekarpenen emaitzak talde teknikoak aurkeztutako diagnosian txertatuko direla iragarri dute Tokiko Agenda 21eko aholkularitza batzordeko kideek, «Tolosako Mugikortasun Jasangarrirako Planaren helburuak eta ekintzak definitu ahal izateko».

ZESTA-PUNTA ▶

Elkarteen arteko Gipuzkoako Txapelketa

Beotibar Zesta-Punta Eskola-koek Elkarteen arteko Gipuzkoako Txapelketako partidak jokatu dituzte asteburu honetan. Gaur, nagusien mailakoen txanda izango da: Beotibar 1 (Artexe-Errondosoro bikotea) Zumaia 5 taldea izango du aurkari, 13:00etan, Donostiako Carmelo Balda pilotalekuan. Andoingo pilotalekuan, berriz, Beotibar 2 (Trabazos-Gonzalez) eta Gazteleku 1 bikoteak izango dira aurrez aurre, 16:30ean. Bihar, bestalde, kadete mailakoek jokatu dituzte partidak: Beotibar 1 bikotea (Telieria-San Sebastian) Donostia Jai Alai 2-ren kontra ariko da, 10:30ean, Donostiako Carmelo Balda pilotalekuan.

IKASTAROA ▶

Erretzeari uzteko ikastaroan izen-ematea zabalik

Iaz bezala, aurten ere erretzeari uzteko ikastaroa antolatuko du Udaleko Osasun eta Gizarte Zerbitzuetako departamentuak. Eskolak urriaren 7an hasiko diren arren, izen-ematea zabalik da egunotan, urriaren 1a bitarte. Urriaren 7an aurkezpen saioarekin ekingo diote ikastaroari; urriaren 21ean eta 28an eta azaroaren 4an, 11n eta 18an izango dira tratamendu saioak; eta jarraipen saioarekin amaituko dira eskolak, abenduaren 16an. Bi ordutegi daude aukeran: 15:30etik 16:30era, eta 17:00etatik 18:00etara. Saio guztiak Tolosako Kultur Etxean izango dira. Izena eman nahi duenak edo ikastaroari buruz informazio gehiago nahi duenak Udaleko Osasun eta Gizarte Zerbitzuetako departamentuarekin harremanetan jarri besterik ez du (943 69 74 60).

ZAHARKINAK

TOLOSA

2004ko irailaren 4tik 26ra
San Esteban auzoko Feria Lekuan
Egunero zabalik, 11etatik 13etara eta 17:30etatik 20:30etara

ARAMBURU

Salgai (Tolosa), Pisu Gorosabel 40ean, Ganbara eta garajearekin.
Salgai (Tolosa), Baju komertzialak Belate eta Nagusia kalean.
Salgai (Tolosa), Pisu Araba Etorbi dean, Zoragarria.
Alokatzeko (Tolosa), Lokal komertziala Errementari kalean, Pizzeria edo bokolategia jartzeko egokia.
Alokatzeko (Tolosa), Bulegoa Korreo kalean 1, pisua igogailuarekin
Alokatzeko (Tolosa), 145m²-ko bulegoa Larramendi kalean.
Alokatzeko (Tolosa), Garaje irekiak Larramendi eta Araba Etorbidean.

943 65 17 13 / 677 46 09 16

www.tolosaldekohitza.info

▶ sar zaitetz eskualdeko web atarira

▶ inkestak, eztabaidak, eguneko albisteak, argazki bildumak, zerbitzuak, zorion agurrak...

TXIRRINDULARITZA ▶

Asier Olea eta Aritz Pagola Oriako txirrindulariak dira pista nahiz errepide modalitatean; Olea 3. da Espainian eta 2. Euskadin, eta Pagolak brontzeko domina lortu zuen Euskadiko Txapelketan **MADDI SOROA**

ASIER OLEA ▶ TXIRRINDULARIA

«Autoa da txirrindularitzak duen alderik txarrena»

Asier Olea txirrindularia tolosarra da, 16 urte ditu, eta Goierri ikasten du. Itzuliak gustatzen zaizkio gehien, ibilbide luzeak.

Nola hasi zinen txirrindularitzan?

Betidanik ibili izan naiz bizikletan, txikitatik beti izan dut bizikleta bat ondoan. Aita asko ibiltzen da bizikletan eta asko daki —bera da nire entrenatzailea— orduan, berari esan nion txirrindulari talde batean hasi nahi nuela, eta Oriako-n nire izena eman zuen 12 urte nituela.

Zein dira zuretzat txirrindularitzaren alderik onena eta txarrena?

Nire kirolik gustukuena da, eta ondo pasatzen dut; kirola egiten dudana bitartean, paisaje politik ikusten dira eta oso entretengarria da. Gainera, nahi duzun tokira joaten zara entrenatzera, eta toki berri asko eza gutzen dituzu. Okerrera, be-

rriz, autoak direla esango nuke. Autoa da txirrindularitzak duen alderik txarrena; beti zaude arriskuan, ondok pasatzen zaizkizun autoen beldur; ezin zara lasai entrenatu.

Orduan, onena litzateke bidegorriak egitea.

Ba bai, nik asko eskertuko nituzke bidegorriak entrenatzeko; bariantea pasatzeko bidegorriren bat edo zerbait egongo balitz behintzat... Esan zuten zerbait egingo zutela, baina...

Zein txirrindulari duzu gustukoena?

Alejandro Valverde. Azpimarratzeko moduko txirrindularia iruditzen zait. Orain, adibidez, Espainiako Itzulian min hartu du; eta, hala ere, bigarren postuan dago. Denean da ona, esprimean, igoeretan, zelaian. Txirrindulari konpletua da, bera bezelakoa izan nahiko nuke.

Zein da zure helburu nagusia?

Hurrengo urtean jubeni mailara pasatuko naiz, eta itzulietan parte hartzeko aukera izango dut horrela. Nire helburu nagusia, ohiko lasterketan postu onetan sailkatzea eta ongi prestatua egoteaz gain, itzulietan ongi ibiltzea da, ahal bada lehenengo postuetan.

Etorkizunari begira, nola ikusten duzu zeure burua txirrindularitzan munduan?

Txirrindularitzaz bizi nahiko nuke, ederra litzateke hori! Gustuko dudana egingo nuke, horregatik kobratuaz gainera; karreretara joan, entrenatu... Oso gogorra da, ordea, asko entrenatu behar baita, beti lehenengo postuetan aritu... Eta horrek asko sufritzea esan nahi du, baita gauza askori uko egitea ere. Hala ere, nire buruan oso argi daukat horretara noala, oso mentalizatuta



Olea, Espainiako txapelketan. HITZA

nago. Nire esku dagoen guztia egingo dut hori lortzeko. Txirrindulari profesionala izan nahiko nuke.

Urduri jartzen al zara karre- ren aurretik?

Karrerako irteeran tripak bueltaka hasten zaizkit, baina, etxean ere oso urduri jartzen nau aitak, karreran zehar zer eta nola egin behar dudana hitz egiten hasten zait eta...

ARITZ PAGOLA ▶ TXIRRINDULARIA

«Askotan, bizikletatik jaisteko gogoia ematen du»

Aritz Pagola Tolosan bizi da, 15 urte ditu, eta DBH4. maila egiten ari da Tolosako Eskolapio ikastetxean. Esprinterria da.

Nola hasi zinen txirrindularitzan munduan?

Nire arrebari esker zaletu nintzen. Bera txirrindularia da eta hura ikusiaz ni ere probatzen hasi nintzen. Gustatu egin zitzaidan eta Oriakon izena eman nuen.

Txirrindularitzaren alde onena eta txarrena?

Txirrindularitzaren alde onena eta txarrena? Alesandro Petacchi dut gogoko. Esprinterria naizenez, Petacchi bezelako esprinterrik gustatzen zaizkit, azkarrak direnak.

titu nuen, ezin bainuen geratu, harrotasunagatik edo. Oso gaizki pasatu nuen. Hortaz gain, aldapa igoeretan ere sentitzen den sufrimendua. Askotan, bizikletatik jaisteko gogoia ematen du, baina azkenean mugak jartzen dituzu aldapa goraino iritsi behar duzula eta igo egiten zara azkenean.

Zein txirrindulari duzu gustukoena?

Alessandro Petacchi dut gogoko. Esprinterria naizenez, Petacchi bezelako esprinterrik gustatzen zaizkit, azkarrak direnak.

Zein da zure helburu nagusia?

Orainoz ez dut helburu finkorik, entrenatu eta aurrera segi, lasai hartu nahi dut gauza. Jubeni mailara pasatakoan eta gauzak ongi joanez gero, Espainiako Txapelketetan lehe-

nengo postuetan ibili nahiko nuke; serioago hartu eta burua asko entrenatzera mentalizatu txapelketetan buru-belarri jartzeko. Hala ere, lehenik ikasketak daude, eta gero bizikleta. Nire ametsa, ordea, esprinter profesionala izatea da.

Etorkizunari begira, nola ikusten duzu zeure burua txirrindularitzan munduan?

Txirrindularitzan jarraitzeko, ongi ibili beharra dago eta hori ez da lan erraza. Hala ere, argi daukat ikasketak direla garrantzitsuena. Lehenik batxilergoa egin nahiko nuke eta gero arkitektura, edo eraikuntzarekin zerikusia duen zerbait ikasi. Gerora, txirrindularitzatik bizi ezin banaiteke, hor egongo bailitzateke lorturiko titulazioa. Beraz, egoeraren arabera, gauzak ongi badoaz txirrindularitzan segi, bestela



Pagola, Espainiakoan. HITZA

lanean hasi. Denborak esango du.

Urduri jartzen al zara karre- ren aurretik?

Irteeran izaten dut nerbiorik gehien, jende pila bat elkar-tzen gara eta denok nahi dugu postu ona lortu. Hori da unerik txarrena, behin lehenengo hiru kilometroak egindakoan lasaitu egiten naiz. Bestela, ez dut urduritasunik izaten.

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ **112**

- Alegialdea.** Osasun z.: 653212
- Anoeta-Alkiza-Hernalde.** Medikua: 65 23 39
- Asteasu.** Medikua: 69 24 23
- Berastegi-Elduain.** Medikua: 68 33 61
- Bidegoian.** Medikua: 68 11 34
- Ibarralde.** Osasun etx.: 672411
- Ikaztegietak.** Medikua: 65 33 29
- Irura.** Osasun zentroa: 69 07 20
- Leitza.** Osasun z.: 948 510800
- Lizartza.** Medikua: 68 20 77
- Tolosa.**
 - ▶ Anbulatorioa, larriald.: 461111
 - ▶ San Esteban: 00 68 00
 - ▶ Gernikako arbola: 00 69 00
 - ▶ Asunzio klinika 67 57 99 - 67 53 90 (larrialdiak)
 - ▶ Udaltzaingoa: 67 58 58
 - ▶ DYA: 67 25 36
 - ▶ Gurutze Gorria: 67 48 88
- Villabona.** Anbul.: 00 69 70
- Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 693930

GARRAIOAK

- ▶ Renfe Tolosa: 65 28 89
- ▶ Donostiako autobusa: 36 17 40
- ▶ Taxia: 67 04 20
- ▶ Taxia (Leitza): 608 873016

KOMUNIKABIDEAK

- ▶ Galtzaundi: 65 50 04
- ▶ Aiurri aldizkaria: 30 07 32
- ▶ Tipi Itapa ald.: 948 631888

EUSKALTEGIAK

- ▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06
- ▶ Arramele-AEK: 67 12 14
- ▶ Ika (Leitza): 948 61 07 76

GUARDIAKO FARMAZIAK

- Gaur.** Azpiroz. Amaro, 9 (Tolosa). 943 67 51 18.
- Larraia M.I. Elbarren, 95 (Leitza). 112.

TOLOSALDEKO HITZA

- Publizitatea.** 661 67 88 18. tolosaldean_publici@tolosaldeko-hitza.info
- Tolosa.** 687 41 00 82 - 687 41 00 33. tolosa@tolosaldeko-hitza.info
- Villabona-Aitz.** 687 41 00 22. villabona_aiztondo@tolosaldeko-hitza.info
- Anoetalde.** 687 41 00 22 anoetalde@tolosaldeko-hitza.info
- Ibarralde.** 687 41 00 32. ibarralde@tolosaldeko-hitza.info
- Alegialdea.** 687 41 00 34. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info
- Leitzalde.** 687 41 01 18. leitzalde@tolosaldeko-hitza.info

iragarki laburrak ▶

- LANA**
Tolosa. Neska behar da Tolosan bi haur zaindu eta ebeko lanak egiteko. Tfnoa.: 943 01 62 08.
- SALGAI**
Autoa. Hyundai Lantra salgai. Sei urte. 686 87 04 07.

IRURA ▶ JAIK

Herensugearekin eta pregoiarekin hasi dira San Migel jaiak Iruran

Gaur, egunean zehar haurrentzako ekintzak izango dira; 19:30ean sagardo dastaketa izango dute herritarrek



Herensugea iritsita hasi ziren atzo Irurako jaiak: Marimi Ugalde alkateak esan zuen pregoia. G. AZKUE

GARAZI AZKUE

Iritsi dira azkenean Irurako San Migel jaiak. Urtebete itxaron ondoren, atzo izan zen festen hasierako txupinazoa.

Herensugearen ateerak eman zion hasiera ekitaldiari. Ondoren, Marimi Ugalde alkateak bota zuen pregoia. Eskerrak eman zizkien agertu ziren guztiei. Bestalde, egun hauetan komunikabideetan aipatutako berria gogorarazi zien herritarrei, «Irura da beste bi herriekin batera aberatsena. Beraz,

ea ditugun proiektuak betetzen diren, ikastola esaterako». Ugaldek, «joan direnak eta gure artean ez daudenak» izan zituen gogoan festen hasierako pregoian.

Ugaldek, jai zoriontsuak, paketsuak eta alaiak opa zizkien bertan bildu ziren herritarrei.

Festetarako oharrak

Bestalde, udal arduradunek, festetan taldean ibiltzeko gomendioa zabaldu dute eta bakarrik ez ibiltzeko gauetan, au-

rreko urteetan izan diren «eraso itsusiak» ekiditeko. Horretaz gain, festetarako jarritako komunak erabiltzeko eskatu dute Udaletik.

ERNESTO LASA ▶ SAGARDO DASTAKETAKO PARTAIDEA

«Eguraldiak laguntzen badu festa polita izango da gaur plazan»



G. AZKUE

Irurako festetan murgilduta, gaur izango da sagardo dastaketa. Gainerako sagardogileen artean egongo da Ernesto Lasa irurarra. HITZA bere sagardotegiko txokoan egon da Lasarekin festen inguruan hitz egiteko.

Nolako giroa egoten da festetan sagardo probaketan?

Oso giro ona egoten da, jende ugari biltzen da. Eguraldiak laguntzen badu behintzat, festa polita izango da gaur plazan.

Hala ere, eguraldi txarrarekin frontoian egingo da dastaketa eta hori ere leku polita gelditu da.

Zenbat urte daramazu sagardo dastaketan parte hartzen?

Ni hasieratik nago bertan. Badira sei edo zazpi urte lehenengoan egin zenetik.

Sagardoa eta trikitixa ohitura zaharrek inotzen dugu. Asko aldatu al dira festak orain urte batzuetatik hona?

Asko aldatu dira festak baina Iruran oraindik ere tradizioari eusten zaio. Baditugu bertako trikitilariak, txistulariak eta dantzariak. Baina ohiturak aldatu dira, gure garaian valsean ere ezin genuen dantza egin. Nire ustez, festak urtetik urtera hobetzen doaz. Lehen ez zegoen horrenbeste diru, horretan asko aldatu dira.

Sagardo dastaketan egoteaz gain, zer gehiago egingo duzu festetan?

Afariren bat edo beste egingo dugu. Orain dantzan ibiltzeko ez gaude! San Migel eguna ere egun polita izaten da, meza nagusira joan eta ondoren haiketako, bertsolariekin, trikitilariekin...

Kanpotar bati zer egun gomendatuko zenioke?

Biharko eguna esaterako, sagardo dastaketara gonbidatuko nuke. Sagardotegi giroa izaten da. ◀

EGITARRAUA ▶

GAUR

09:00. Gazte festako taldea San Migel plazatik aterako da.

11:00. Marrazki lehiaketa.

12:00. Pilota eskolako haurren arteko xare eta pala partidak trinketean.

14:30. Gazteen bazkaria Aizpurua jatetxean eta haurren bazkaria San Migel plazan.

15:30. Haurrentzako ludoteka eta tailerrak trinketean.

17:30. Ume festa: *Munduko arrautzarik handiena* haur

ikusbizuna Gorringo taldearen eskutik Kaskailu parkean.

18:30. *Non dago trukoa?* Haur ikuskizuna Gari, Montxo eta Joxelontxo pailazoekin Loatzo plazan.

19:30. Sagardo dastaketa San Migel plazan trikitilariekin.

23:30. Txamuyo hirukoia tango eta milongak eta bi dantzari bikote, labaderoaren ondoko plazan.

24:00. Rock kontzertua San Migel plazan: Nok eta Reincidentes taldeekin.

DESA CRISTAL
Autoaren kristaldegia
Auto furgoneta eta kamioi
kristal muntaia, salmenta eta konponketa
• LAMINA BAIMENDUEN INSTALAKUNTZA
SOLAR-CHECK
TAILERRA: Ibaiondo bailara, 17
8.pabilloia • N-1 errepidea. • 20271 IRURA Telf.: 943 69 16 16 • Faxa: 943 69 12 47

Tximak Ondo pasa jaietan!
Ole Apaindegia
Estetika • Soraiuma
Nagusia, 18 • IRURA
Telf.: 943 69 33 94

Carpintería ATARI, S.L.
AROTEGIA
Aroztegi mekanikoa. Obrak eta berrikuntzak.
Eskailera eta altzariak neurriari. Etxebizitzetako
eta likal komertzialetarako aroztegia.
E-maila: catari@euskalnet.net
Ibaiondo Industriagunea, 7 • 20271 IRURA • Telf.: 943 69 01 40 - Faxa: 943 69 34 29

Bat Garajea
Ondo pasa Irurako jaietan!
Telf.: 943692205 • Faxa: 943693771 • Ibaiondo Indus.11 • 20271 IRURA

ONDA Ondo pasa IRURAKO JAIK!
janaridenda
Gregorio Ameztói, 13 behea
IRURA • Telf.: 943 69 64 17

ENARA taberna
Ondo pasa sanmielak!
San Miguel, 2 • 20271 IRURA

VILLABONA ▶ KIROLA

Hiru marka berri jarri ditu Jon Sasiainek

85 kilo arrankadan, 105 kilo bi denboratan eta 190 kilo total olinpikoan Euskadiko errekor berriak jartzea lortu du

OLAIA ESKITXABEL

Lan bikaina bete zuten pasa den asteburuan Danena-Olaederra Halterofilia taldeko pultsulariek Antsoain trofeoan.

Hamabost urtez azpikoan mailan, Jon Sasiainek Euskadiko hiru errekor hautsi zituen: 85 kilo arrankadan, 105 kilo bi denboratan eta 190 kilo total olinpikoan marka berriak jarri zituen Sasiainek lehenengo postua lortuz. Danena-Olaederra taldeko Jon Lopez eta Mikel Quintana bigarren eta hirugarren geratu ziren, hurrenez-hurren.

Teknika arloan, ere goreneko postuetan sailkatu ziren Da-

na-Olaederra Halterofilia taldeko pultsulariak. Igor Sasiain lehenengo postuan sailkatu zen infantilen mailan; Iker Hernandezek, berriz, bigarren postua lortu zuen alebinetan.

Absolutoetan, Ekaitz Kortajarena izan zen txapeliduna.

Hurrengo txapelketa

Bihar, igandea, laugarren eta azken Euskadiko Ligan izango da Iruñean eta kadete eta promesa mailletako pultsulariek hartuko dute bertan. Euskadiko Ligan ariko diren pultsulari guztiak Danena-Olaederra Halterofilia taldeko kideak izango dira.



Jon Sasiain pultsularia. HITZA

ZIZURKIL ▶

Mendi martxa Gudari Eguna dela-eta

Etzi, irailaren 27an, izango da Gudari Eguna; hori dela-eta, ekitaldi ugari antolatu dituzte biharko Zizurkilen. 09:00etan, mendi martxa egingo dute Pedro Mari Otaño plaza-tik abiatuta. Eta plaza bertik. Urkamendira abiatuko dira 12:00etan, «atzoko eta gaurko gudariei omenaldia egitera», azaldu dute antolatzaitzaileek. 13:00etan, omenaldia izango da Zizurkilgo hilerrian.

IKAZTEGIETA ▶

Yoga taldea sortzeko bilera egingo da etzi

Aurreko ikasturtean bezala, Yoga taldea osatu nahi dute hainbat herritarrek; interesa duen taldetxo bat badago eta irakaslea ere lortu dute. Eta horren inguruan hitz egiteko bilera deitu dute etzizako, irailaren 27rako. Yoga egiten ikasteko interesa duten herritarrei bilerara agertzeko deia luzatu diete antolatzaileek. Bilera, 17:30ean izango da bihar kiroldegiko liburutegian.

ALEGIALDEA ▶ KIROLA

Kluben arteko Txapelketan lau partida jokatu dituzte bidegoiandarrek

Aurrera-Saiatz taldeko senior mailako partidak Beotibarren izango dira

O.ESKITXABEL

Gipuzkoako Kluben arteko Txapelketak aurrera jarraitzen du; gaur, lau partida jokatu dituzte Aurrera-Saiatz taldeko mutilek.

Jubeniletako bigarren mailan, Aurrera-Saiatz taldeko Beñat Iriartek eta Axier Telleriak Goierrri taldeko pilotarien aurka jokatu dute Urretxuko pilotalekuan; 12:00etan hasiko da partida.

Senior mailakoak izango

dira Aurrera-Saiatz taldeko pilotariek jokatu dituzten gaintzako hiru partidak.

Seniorrak, Beotibarren

16:00etan, senior lehenengo mailan, Aurrera-Saiatz eta Zazpi-Iturriko pilotariak izango dira aurrez-aurre. Mikel Belloso eta Iker Huarte izango dira Bidegoiango taldeko ordezkariak eta Baez anaiak, berriz, Amezketako taldekoak.

Jarraian, senior hirugarren

mailako pilotariak irtengo dira jokatzera. Igor Aranzabe eta Eneko Galarra bikotea (Aurrera-Saiatz) Kuku taldeko pilotarien aurka ariko da.

Alde Zaharra eta Aurrera-Saiatz taldeen artekoa izango da azkenengo neurketa. Ugaitz Renobalesek eta Julen Mujikak jokatu dute Aurrera-Saiatz taldetik.

Beotibarren jokatu diren senior mailako hiru partida horiek Tolosako Beotibar pilotalekuan izango dira.



Abaltzisketako eta Amezketako hiru haur

ORENDAIN ▶ Orain dela bi aste hasi zuten ikasturte berria Orendaingo Haur-Eskolan; aruten, hamar, hamaika eta hamabi hilabeteko hiru haur daude bertan. Abaltzisketakoak dira horietako bi eta amezketarrak, bestea. Miren Egunez abaltzisketarraren ardurapean egoten dira; astelehenetik ostiralera 07:30etik 14:30era bitarteko ordutegian. Jolasteaz gain, lo eta jan ere bertan egiten dute hurrek; hurrek behar dutenerako prestatuta dago udaletzeko gelan dagoen Haur-Eskola. O.ESKITXABEL

AMETZ
ESTANKOA

Tabakoa
Prensa
Goxokiak

M. Goi Angeru enparantza,2
20271 IRURRA
Tel.: 943 69 96 51

URARI TEKNIKA EBAZPIDEAK

- Deskalzifikazio Alderantziko osmosia
- Klorazioa Iragazketa Legionella tratamendua
- Produktu kimikoak zirkuitu hauentzat: ur eta bapore kalderak Bonba dosifikatzaileak

Tel.: 943 69 05 26 • Faxa: 943 69 05 02
urak@euskalnet.net
Laskibar Bailara, 1 - 4. pabiloia
IRURA

Irurako Ikastola

Jai zoriontsuak pasa!

ikastolako tabernan elkar ikusiko gara

San Miguel, 5 • IRURA • Tel.: 943 69 43 74

IBARRALDEA ▶ GIZARTEA

Kutzazabalek hainbat proiektu bideratuko ditu eskualdean

Belauntza, Gaztelu, Leaburu-Txarama eta Orexako proiektuak onartu dira eta segituan hasiko dira lanekin



Herriko Taberna zaharra egokitze proiektua onartu dute Leaburun. IÑIGO TERRADILLOS

IÑIGO TERRADILLOS

Kutzaren Gizarte Ekintzaren eskutik, hau da, Kutzazabal programaren baitan, eskualdeko lau udalek diru laguntzak jasoko dituzte hainbat proiektu bideratzeko; Belauntza, Gaztelu, Leaburu-Txarama eta Orexaren kasuak dira.

Leaburu-Txaraman 50.000 euroko diru laguntza onartu dute bertan dituzten proiektuetarako. Joxe Kruz Goñi Leaburuko alkatea oso gustura dago, «diru horrekin herriari mesede handia egingo dion proiektua bideratu ahal izango delako».

Leaburun, sendagilearentzat eta gaixoentzat Herriko Taberna zaharra zegoen zatia egokitzea da lehenengo helburua. Honen beharra nabari zu-

ten eta beheko solairua bideratu nahi dute gaixoen bisitetarako. Gainera, erraztasun handiago izango dute ezinduek beheko solairuan, hauek arazoak izaten baitzituzten orain arte.

Txaraman, antzeko proiektua dute, sendagilearentzat eta gaixoentzat egoera hobetzea dutelarik helburua; kasu honetan, gimnastika edo errehabilitazioak egiteko aukera izango dute bertakoek.

Aurrera begira, asmo gehiago dituzte Leaburu-Txaraman. Liburutegi berria jarri nahi dute beheko solairu horretan eta honekin amaitu eta gero bigarren solairuan jarraituko dute lanean. Solairu horretan etxebizitza bat jarri nahi dute, bakarrik geratu diren baserri-tar eta herritar adinduei edo uneren batean bizitzeko etxe

baten beharra duen edonorentzat zuzendua izango delarik etxebizitza hau.

Gazteluren kasuan, herriko plazan, eskola zaharra zegoen eraikinean egoitza soziala ezarri nahi dute beheko solairuan; jubilatuentzat, gazteentzat edo haurrentzat izango da eta jolasteko txokoa, filmak ikusteko gela edo jangela izango ditu besteak beste. Lehenengo solairuan, berriz, apartamentu bat egiteko asmoa dute, adinduentzat eta bakarrik bizi direnentzat zuzendua izango delarik. Kutzazabal programak 50.000 euroko diru laguntza emango du horretarako.

Belauntzan, 30.000 eurokoa izan da duela gutxi onarturiko laguntza. Herri honetan, *Martintxo* baserria erabiliko dute emandako diruarekin apartamentuak eraikitzeo. Berezi pertsona adinduentzat izango dira apartamentuok, bazterturik daudenek, edo epe baterako etxebizitza behar dutenek ere beraien eskura izango dituztelarik.

Azkenik, Orexan adinduentzat eta gazteentzat zentro bat egitea dute helburu Uli Mankomunitateak dituen bulegoak dauden eraikinean. 30.000 euroko laguntza izango dute.

Diru laguntza hauei, Eusko Jaurlaritzak emango duena ere batu behar zaio. Oraindik erantzuna jasotzeko dute, baina jaso bezain laster lanean hasiko direla aipatu dute lau udale-tako ordezkariak. Datorren hilean obrekin hasteko asmoa azaldu dute.

Proiektu desberdinak

Leaburu-Txaramako Udalak akordio bat lortu zuen duela gutxi INEMekin. Horrela, bost postu atara zituzten Leaburun bertan lan egiteko. Bost herritar dira, hain zuzen ere, herriaren sortzen diren lanak egiten dituztenak akordio horren bidez; langabetu edo ikasleek osatzen dute lan talde hau eta urtebeterako kontratua sinatu dute. Hilerria garbitzen edo bankuak pintatzen aritu dira, besteak beste, orain arte, eta Herriko Taberna zaharra egokitzeo laster hasiko diren obretan ere egingo dute lan.

Bestalde, Diputazioak onartu berri du San Sebastian ermitatik plazara doan GI-3212

errepidea zabaldu eta hobetzeko proiektua. Arazo asko eman izan ditu errepide honen duen zabaleraengatik; bi ibilgailu gurutzatzean kalte bat baino gehiago izan da eta ondorioz kexa asko jaso dituzte. Azkenean arazo honi aurre egiteko aurkeztu zen proiektua onartu eta zabaldu egingo dute.

Proiektu honek 132.000 euroko aurrekontua du eta GI-3212 errepideko zati bati eragiten dio, kilometro erdiko neurrian, hain zuzen ere.

Errepidea zabaltzeko egingo diren obretan ere hartuko dute parte herriko lanetan aritzen diren bost langile horiek.

IBARRA ▶

Gimnastika erritmikoan izen-ematea

Urriaren hasiko dira ikasturte berriarekin gimnastika erritmikoko eskolak Ibarra. Berrikuntza bezala, aurten txikiak Tolosako kiroldegian izango dituzte eskolak ostiralean 17:30etik 18:30era. Handienak, berriz, orain arte bezala Ibarra Belabieta kiroldegian ariko dira. Izen-emateko edo informazio gehiagorako 629 11 20 61 telefonora deitu behar da, edo bestela, Belabieta kiroldegian bertan egin ahalko da.

BELAUNTZA ▶

Esku pilota ikastaroa haur eta gazteentzat

Belauntzako Udalak haur eta gazteentzat esku pilota ikastaroa antolatzeko asmoa du. Ikastaro hau, larunbat goizean izango litzateke 10:30etik aurrera Belauntzako frontoian. Interesatuak Kultur Etxean eman beharko dute izena 17:30etik 20:00etara eta honetarako azken eguna irailaren 28a izango da

IBARRA ▶

Lasturrera irteera datorren larunbatean

Ibarra Garagardo Festan egindako lana eskertu eta sortu zen giroari eusteko Lasturrera irteera antolatzea erabaki zuten antolatzaileek, lanean aritu zirenentzat eta animatzen diren herritarrentzat. Urriaren 2an aterako dira 9:30ean Ibarra Kultur Etxetik, 11:00etan Meagasan hamaiketako egingo dute eta 12:00etan Getarian kalejira izango da trikitilariekin. 14:30ean, berriz, bazkaria egingo dute eta ondoren zenezak izango dituzte Lastur- en. Autobus bat bete dute izena eman dutenen artean eta bigarrena ere bete nahi dute antolatzaileek. Txartelak 23 euroren truke eros daitezke Zubiaurre, Arkaitz-Azpi, Danon Txokoa eta Denak tabernan.

Dantza Aretoa
ERKINTZA
Aerobik, stepak, pilates metodoa dantza modernoa - Jazz, latinoak, areto dantza, baleta...
Tlf.: 943 67 41 49
Euskal Herria, 17-behea •20400 IBARRA

HITZA, egunero zure etxean jaso nahi baduzu deitu

943 30 43 46

Edozein kexa, iradokizun edo kezka argitzeko ere bai



LEITZA ▶ GIZARTEA

Okile: tailer bat eta gehiago

Sei lagun dira bertako kideak eta paper zaharrekin berria egin ondoren, gogora etortzen zaizkien produktuak ateratzen dituzte esku artetik



Okile tailerreko kideak, diseinuak egiteko erabiltzen duten ordenagailua, berria, instalatzen. JAIONE ASTIBIA

JAIONE ASTIBIA

Aspaldian zor genuen bisita eta atzo suertatu zen agindutakoa betetzea. Besteak beste, liburutegia eta Haur Eskola dauden eraikinean berean dagoen Okile tailerrea sartu eta hantxe ziren, Maite Iturrarte, Mila Labaien, Estitxu Zabaleta, Ana Mari Diosdado eta Joxe Mari Zabaleta, Pablo Feo monitoreaekin batera. Lontxo Perurena kideak, ostiraletan beste eginkizun bat izaten duela eta, atzokoan falta zen.

Edozein moduz, egun berezi samarrean harrapatu genituen, «gaur ospakizunetako eguna suertatu zaigu: ordenagailu berria iritsi zaigu eta gero gonbitea ere badugu» argitu ziguten. Eta egia! Han sartutakoan guztiak ere, ordenagailua eta bere osagaiak muntatzen ari ziren. Hori bukatuta, gonbite goxo askoa dastatzeko aukera izan genuen, gerok ere.

Baina hau ez zen ohiko eguna Okile tailerrean. Izan ere goizeko berderatzieta hasi eta arratsaldeko lau terdiak arte, eguerdiko bazkalorduan salbu, lanean aritzen dira, be-



Egiten dituzten lanak, bestalde, lagunak egiteko baliagarri dira. J. A.

ren berezitasuna bihurtu den gaiarekin: birziklatutako papera.

Hasi eta buka

Tailerrean gai honekin egiten dute lan eta bi atal berezitu daude: papera egin egiten dute lehendabizi, eta ondoren erabili.

Okilaren aurreneko urteetan, eskulanak egiten zituzten: tapizak, gurutze puntuko koardroak... eta besteak beste, paper birziklatua egiten ere ikasi zuten: paper zaharrak puskatu, orea egin, ura kendu, paper

berria egin, lehortzen utzi eta, lixatu eta jaso. Eta ondoren, paper horrekin gutunazalak egiten zituzten: eskuz moztu, tolestu, kolatu...

Material hauek, batzuk enpleiatzen zituzten eta hortik ateratako sosaekin, aurrena gilotina bat, gero trokeladora tiki bat, gero... hobekuntzak egiten joan dira, geroz eta produktu hobeak eta desberdina- goak ateraz.

Gaur egun jada, arlo honetara bideratuta dituzte ahaleginak, beren berezitasuna bihurtu dela esan daitekeelarik. Tailerrean bertan egiaztatua ahal

izan dugunez, bederatzi paper mota egiten dituzte, haserako orearen arabera, eta bakoitzari erabiltzen desberdina ematen diote: gogorrenak kaxak eta kutxatxoak egiteko eta fine- nak, ordenagailuan inprimatzeko. Eta askotariko produktuak ateratzen dituzte esku artetik: gutunazalak, txartelak, ospakizunetarako gonbidapena- nak, tamaina, itxura... guztieta- ko kaxak (lisoak edo erliebee- kin, kolore batekoak edo gehiagokoak...), eta abar. Ater- ratzen duten guztia, hobetzen inbertituz, geroz eta eskaintza zabalagoa egiten dute.

Eta kate honetan guztian, kide bakoitzak bere eginkizuna betetzen du eta exari-exa- rian, norberak duen marxan egiten dira lanak.

Paper gaietaz gain, bestela- ko lan puntualak ere egiten di- tuzte: buruhandiak, zaharber- ritzeak, eta laister Orantzaro- en buruak egiten hasiko omen dira. Edozein moduz, eskuzko lana da hemen egiten dutena, eta denbora behar izan arren, kalitatezko lana egiten dute. Horren froga eskuartearen dituz- ten hainbat eskaera, «jendeak gutxi ikusitako gauzak nahi ditu, esaterako gonbidapena- ten, eta gurera etortzen dira» azaldu digute, ale batzuk era- kutsiz. «Denborarekin denak egingen ditugu», zioten erdi txantxetan.

Egunetik egunera, gauza gehiago egiten dituzte, tresna gehiago ere bai, eta «aretoa tiki geratzen zaigu», azaldu zu- ten, bestalde.

Honetantxe aritzen dira bada, abuztuko hilabetea eta Eguberri eta Aste Santuko egun batzutan izan ezik. Eta, asteburuetan ere ez, noski. Gainerako egun guztietan han- txe topatuko ditugu Okile Ezin- du Psikikoen Tailerreko kide- ak, lantxoren bat egitea nahi izanez gero. Edo, gu bezala, bi- sitatxoa eginez, haiek ezagutu eta jolasaldia egiteko.

LEITZA ▶

Etzi, hilak 27, kontzentrazioa dago deitua herriko plazan

29 urte beteko dira, Txiki eta Otaegi exekutatu zituztela eta gogoan izanen dituzte

J. ASTIBIA

Hurrengo astelehenean, hilak 27, kontzentrazioa dago deitua, arratsalderako. Kasu honetan, plazan biltzeko asmoa dute, 20:00etan.

Ekitaldi politiko hau urtero antolatzen den Gudari Egunaren baitan burutuko da, hain zuzen ere, 1975. urteko egun berean, irailaren 27 hartako goizaldean, Franco- ren azken aginduetakoaren esanera, besteak beste Juan Paredes Txiki eta Anjel Otaegi, bata Bartzelonan eta bes- tea Burgosen, bakarrik, exe- kutatu zituztela gogora eka- rriz.

LEITZA ▶

Atzo bi urte bete, mugan guardia zibila hil zutela

J. ASTIBIA

Atzo bi urte bete ziren, Leitza eta Berastegiko mugan, Mi- keletetan ETAK egindako atentatuan, Leitza zestina- tua zegoen guardia zibileko kaboa hil zutela.

Hori gogoratzeko, bigarren urteurreneko meza ospatu zuten Leitzako San Migel eli- zan, eguerdi artean, guardia zibileko arduradun zenbait eta Nafarroako Gobernuaren ordezkarri modura etorritako hainbat agintariren parte- hartzearekin.

Atentatu berean beste zau- ritu bat ere izan zen.

iragarki laburrak ▶

Administrazio laguntzailea. Eusko Jaurilaritzan eta udaletan lan egiteko: Zarautz (6 lanpostu), Hernani, Usurbil, Beasain, Bergara. Informazioa doan 943 65 01 93.
Gidariak. Lanpostu finkoak Eusko Jaurilaritzan, udal erberdinetan eta Foru Aldundian. Informazioa doan 943 65 01 93.

eskaintza ezberdinen inguruan. Informazioa doan. 943 65 01 93.
Sukaldari laguntzaileak, garbitzaileak, zerbitzariak. Lanpostu finkoak Eusko Jaurilaritzan, udaletan, Foru Aldundian eta ikastetxeetan. Informazioa doan. 943 65 01 93.

Udal haurtzaindegiek honako langileak behar dituzte: irakasleak, hezitzaileak, zaintzaileak eta laguntzaileak. Informazioa doan. 943 65 01 93.
Liburutegiak, harreragileak. Lanpostu finkoak Eusko Jaurilaritzan, udaletan eta Foru Aldundian.

Informazioa doan. Deitu 943 65 01 93 telefono zenbakira.
Laborategiko teknikari, laguntzaileak. Ur deparatzaileen kontrola, analisi klinikoak. Informazioa doan. 943 65 01 93.
Ezinduak. Errezerbatutako lanpostu finkoak. Gutxienez %33ko

ezintasuna duten pertsonentzat. Informazioa doan. 943 65 01 93.
Basozaina. 17 postu libre Administrazio Publikoan. Informazioa doan. Deitu. 943 65 01 93.
Udaltzaingoa. Lanpostu libreak udaletxeetan. Informazioa doan. 943 65 01 93.



AGENDA ▶

DEIALDIAK

Bidegoian. XV. Kultur Astearren barruan, bihar goiz osoan Goiatzen azoka: artisauen lanen erakusketa, produktuen salmenta, sagardo eta txakoli...

Leaburu. Bihar Jubilatuen Eguna. 12:00etan meza eta ondoren dantza saioa. 14:00etan bazkaria elkartean, trikitilariak alaiturik.

Leitza. Gudarien omenezko kontzentrazioa. Etzi 20:00etan herriko plazan.

Ibarra. Bihar Bertakoa, ezagutzekoa azoka berezia goiz osoan zehar herriko kaleetan: produktuak, ganadua, aizkolariak, artisauak, taloak, ezta...

Tolosaldea. Astelehenean Gudari Eguna dela eta, egun hauetan etxetako balkoietan krespoidun ikurriak jartzeko deialdia. Gaur Esteban Kroma gudariaren oroimen ekitaldia 12:00etan Larraitzen.

ZORION AGURRAK ▶



ZORIONAK

Xabi eta Miren (Zizurkil).

Egun on bat pasa dezazuela zuen lagunen partetik.

Bihar mendi irteera egingo da 10:00etan Gaztelutik Uliko bordara eta 12:00etan bertan gudari hilei omenaldia egingo zaie. Etzi, eskualde mailako manifestazioa 20:00etan Tolosan, Triangulo plazan.

Zizurkil. Mendi irteera bihar 9:00etan P.M. Otaño plazatik Urkamendira; 12:00etan gudariari omenaldia bertan eta 13:00etan omenaldia hilerrian.

ERAKUSKETAK

Hernalde. Leire Markinez. Ostatuan. **Tolosa.** Aranburu Jauregiko bi erakusketek —May Colmeneroren ikasleena eta Miren Gonzalezena— gaur izango dute azken eguna, azken euriteek iragazketa eta hezetasun arazoak areagotu dituztelako eta berritze lanak hasi behar dituztelako.

Tolosa. Zaharkinak Ferialekuan. Bihar da azken eguna.

JAIK

Aldaba. 16:00etan txupinazioa; 16:30ean plater-hausketa lehiaketa herrikoia; 21:00etan zahagi ardoa eta 23:00etan Laja eta Mikelen erromeria.

Irura. Gazte Festako taldearen irteera; marrazki lehiaketa; xare eta pala partidak; bazkaria; ludoteka eta tailerrak; ume festa; haur ikuskizuna; sagardo dastaketa; Txamuyo hirukoa; Nok eta Reincidentesen kontzertua.

KIROLAK

Futbola. Gaur.
▶ Tolosa-Lagun Onak (Jubenilen Euskal Liga. Berazubi. 17:00).
▶ San Ignacio-Tolosa (Kadeteen Euskal Liga. Adurtza, 11:45).
▶ Touring-Tolosa CF (Goren maila.

Fanderia, 17:00).
▶ Inburre-Usurbil (Lurraldeko 2. maila. Elorri, 17:30).
▶ Danena-Amaroz (Lurraldeko 2. maila. Elbarrena, 16:30).
▶ Ostadar-Inburre (Jubenilen 1. maila. Mitxelín, 12:00).
▶ Oiarzun-Billabona (Jubenilen 1. maila. Ugaldetxo, 15:30).
▶ Usurbil-Tolosa CF (Jubenilen 2. maila. Harane, 16:00).
▶ Billabona-Aretxabaleta (Kadeteen 1. maila. Arratzain, 16:30).
▶ Tolosa B-Ostadar (Kadeteen 2. maila. Elorri, 10:30).
▶ Internacional-Amaroz (Kadeteen 2. maila. Matigoxotegi, 09:00).
▶ Tolosa CF-Urmieta (Nesken Liga. Elorri, 15:30).

Futbola. Bihar.
▶ Tolosa B-Mundarro (Lurraldeko 2. maila. Berazubi. 16:30).

Areto futbola. Gaur
▶ Ibarra-Tomas Mingot (1. Maila A. Belabieta, 18:30).
▶ Arturo Eyries-Hegoalde (Ohorezko m., Valladolid 17:00)

Futbol 7. Bihar
▶ Ibarra Gazte As.-Knauf Dec. Nuñez (1. Maila A, Beasain 1, 09:30)
▶ Irish Guinn.-Lanbroa Dickens (1. Maila A, Beasain 2, 09:30)

Saskibaloia. Gaur
▶ STL Gaztelu-Aralar Kirolak (Senior maila. Benta Berri, 16:00).
▶ Gros Xake-Tolosa (Junior maila. Bidebieta, 18:00).

Xake. Bihar
▶ III. Ibarra Hiria Saria. Euskal Herria kalean 10:00etan.

ZINEMA

Tolosa. Cuestion de pelotas. 19:30ean eta 22:30ean, Leidor zinemari.

GALTZAUNDI ▶



Aldizkaria. Galtzaundi.

Zenbakia. 198.a.

Orrialdeak. 28.

Tirada. 5.500 ale.

Gai nagusia. Otsa

elektrikoaren uluak.

Erreportaia. Ernioko

gurutzeta eraiki zutenekoa.

Beste gaiak. Postan

euskarari jaramonik ez;

Psikomotrizitate ikastaroa;

Iraganetik eskuratutako

zaharkinak; Jokin Larraza

Martxaundiko beteranoa; Tren

eta autobusen ordutegiak;

Belauntzako herri kirolak;

Irailaren 11ri buruzko

gogoetak; Elkarri bakearen

alde; Afrika beltzaren txokoak

ezagutuz; Marta

Agirrezabalaren iritzia;

Agenda; Horoskopoa...

Argitaratzailea. Galtzaundi

Euskara Taldea.

▶ Nafarroa 6, behe (Tolosa)

▶ 943 65 50 04

▶ galtzaundi@galtzaundi.com

▶ www.galtzaundi.com



ZORIONAK ETA ESKERRIK ASKO DENAGATIK

Juan Agirre eta Mari Luz Bustamante (Tolosa). Gaur urrezko ezteiak. Xabier, Iñigo eta Daviden partetik.

HITZA, zorion agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:

HITZAren egoitzetara:
Araba etorbidea, 5 behea - TOLOSA
Udaletxeko bulegoa - LEITZA

Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri. Mila esker!



URTE ASKOAN

Garikoitz Zeberio Alonso.
Herenegun 4 urte. Zorionak Ibarra eta Lizartzako familaren partetik.

